

NBE-REN ADIERAZPENA

BASERRITARRA ESKUBIDEDUN SUBJEKTU



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN



Azaroan onartu zuen Nazio Batuen Erakundeak Baserritarren Eskubideen Adierazpena, eta ordutik, erabakia berrestea zen Batzar Orokorri geratzen zitzaiona. Abenduaren 18an eman zuen erakundearen organo nagusiak azken pauso hori, nazioarteko baserritarren mugimenduaren aldarrikapen historikoari erantzuna emanez. Hamazazpi urtetako borroka luzearen ondoren iritsi da adierazpena, Via Campesina nazioarteko baserritarren mugimenduak gogorazi duenez.

BASERRITARREN EKARPENARI AITORTZA

Baserritarrek eta landa eremuan lan egiten duten pertsonak bizi duten zaugarritasun egoera onartzeaz gain, nekazari txikien garrantzia azaleratu du NBEK ebazpenean. Pobrezia, gosea, elikadura desegokia edota herrien hustutzea bizi dituzten bitartean, baserritarrek mundu osoan ekoizten diren elikagaien %70 sortzen dituztela azpimarratu du.

Adierazpenak biltzen dituen eskubideen artean daude, besteak beste, laborariek haziak euren eskuetan edukitzeko, lurretara sarbidea izateko, elikadura burujabetzarako eta beren lurraldeari eragiten dieten gaietan partaidetza izateko eskubideak edota agrokimikoen duda egi-

tekoa eta agroekologia bultzatzekoa. Alazne Intxauspe Bizkaiko EHNEko eta Via Campesinako kideak honela laburbildu zuen 97.0 Irrati Libreko Lur eta Murmur saioan lorpena: “Bereziki azpimarratuko nukeena da baserritarra eskubideak dituen subjektu bezala aldarrikatzen duela”.

EUROPAKO HERRIALDEEN ARTEAN ABSTENTZIOA NAGUSI

“Badakigu erabaki hau ez dela estatu guzientzat loteslea, eta zeintzuk izan diren abstenitu diren estatuak. Beraz, lortutakoarekin pozik gaude, baina kritikotasun batetik ere egiten dugu azterketa”, adierazi zuen Intxauspek elkarrizketan. Izan ere, esanguratsua da Espainiako eta Frantziako estatuak eta Europako beste asko ere abstenitu egin zirela bozketan. AEB, Erresuma Batua, Israel, Guatemala, Hungaria, Suedia, Zeelanda Berria eta Australia, berriz, aurka azaldu ziren.

Via Campesinako kideak argi du, dena dela, adierazpena loteslea ez izanagatik ere instrumentu ofiziala dela, eta hemen-dik aurrera lanean jarraitu beharko dutela gobernuari adierazpenen biltzen direnak bete ditzaten eskatzeko. “Artikulu asko ditu adierazpenak, eta horiek marko batzuk jartzen dituzte, eskubide batzuk aitortu baserritarri. Gure lana da orain hori guztia betearaztea”. ●

EUSKAL HERRIKO AGENDA

URTARRILAK 23

ZORNOTZA

Bizkaiko Txotx irekiera

11:00etan, Uxarte sagardotegian

URTARRILAK 25

AINHIZE-MONJOLOSE

Arbolaren betebeharra etxaldean eta landatze proiektua sortzea formazio saioa

9:30ean, Euskal Herriko Laboratzen Ganbaran

IZENA EMATEKO:

etienne@ehlgbai.org

05 59 37 18 82 / 07 82 94 86 77

URTARRILAK 25

GASTEIZ

Hazi ekologikoen sorkuntza

18:00etan Dehesa etxean (Olarizu)

IZENA EMATEKO:

haziensarea@gmail.com

688 855 226

URTARRILAK 26

ERRETERIA

Zuhaitz landaketa

11:00etan Gaztañoko Sorgunean.

URTARRILAK 26

EZKIO

Ba al dakizu arrantzaleek arto hostoak erabiltzen zituztela atunak harrapatzeko?

Arto malutak egiten ikasiko duzu.

7-12 urte bitartekoentzat

lantegi didaktikoa.

16:30ean Igartubeiti

Baserri Museoa.